

KALERATZE ERRAZEN AURKA LAN ERREFORMA HONI EZ!

Azken hilabeteotan lan erreforma inguruko eztabaida egon da estatu mailan. Euskal langileon bizitzan hainbesteko garrantzia duen gai baten inguruko erabakiak Madrilen hartzeak agerian uzten du EAE eta Nafarroako autogobernuaren mugak. Euskal langileak eta herritarak ordezkatzeko ez dituzten eragileak izan dira gai honen inguruko erabakiak hartu dituztenak.

Horrekin batera, salatu beharra dago Espainiako Gobernuak ez duela bere hitza bete, ez du 2012an Alderdi Popularrak alde bakarrez inposatutako lan erreforma indargabetu. Ez du agindutakoa egin ere, ez baitiete lan erreforma haren elementu kaltegarrienei buelta eman. CEOErekin Elkarrizketa Sozialaren bitartez urardotutako akordio bat hobetsi dute langile klasearekin hartutako konpromisoa bete beharrean.

Espainiako gobernuak, CCOO, UGTk eta CEOEk adostutako lan erreformak 2010 eta 2012 urteen arteko lan erreformen hezurdura mantentzen dute. Langile klasearen pobretzea bilatzen zizuten tresna ia guztiak mantenduko dituzte hemendik aurrera ere.

Bereziki bi elementu kezkatzen gaituzte. Batetik, negozio kolektiboan estatuko marko inposatzailea mantentzen dute eta ez diote segurtasun juridikorik eman EAE zein Nafarroan negoziatzen ditugun hitzarmenei. Euskal Herrian gure negoziaketak egin nahi ditugu langileen lan-baldintzak hobetu ahal izateko, inongo kanpo injerentziarik gabe. Negozio kolektiboan erabakitzeke esparrua izatea hori baita guretzat, euskal langileek demokratikoki hautatu dituzten ordezkarien bitartez langileen lan baldintzak hobetzeko aukera izatea.

Honekin batera lotuta, lan-hitzarmen sektorialen prebalentziaren inguruko tranpa salatu behar dugu ere. Eskatzen duguna lan-hitzarmen sektorialak bere osotasunean minimoak izatea da enpresako lan-hitzarmen gaintetik, ez bakarrik soldatetan, elementu guztietan. Eta, bestetik, langileen kaleratze prozedurak ez dituzte aldatu. 2012an kaleratzeko objektiborako kausak izugarri lausotu ziren, kaleratzea merkatu zen, administrazioaren kontrola ezabatu zuten eta tramitazio soldatak kendu zituzten. Horrek guztiak bere horretan jarraitzen

du. Kaleratze erraza langileentzako prekarizazio eta ziurgabetasuna eragiteko tresna da eta horregatik ezarri dio patronalak betoa honen aldaketari.

Gainera, eskubide berriak lortzeko aukera galdu da, eta bereziki larria da erreforma horrek ez jasotzea Etxeko eta Zaintzako Langileak gainerako langileekin erabat parekatzea, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik kanpo utzita eta oinarrizko eskubiderik ez duten egoera bati utsita, hala nola greba edo langabezia-prestazioa, eta, era horretan, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legetik kanpo uzten.

Era berean, erreformak ez du bermatzen azpikontratetako langileek enpresa nagusikoek dituzten eskubide berberak izatea, eta ez da lortzen lan beragatik eskubide berberak izatea bezain oinarrizkoa den zerbait.

Oso larria den lan erreforma baten aurrean gaude. Elkarrizketa Soziala aitzakia izan da hitza ez betetzeko. CEOEri beto eskubidea eman diote, hobekuntza txiki batzuen truke 2012ko lan erreforma berriro ere konbalidatu dadin, hemendik aurrera sakoneko aldaketak egiteko aukerari muzin eginez. Horregatik, 2010 eta 2012ko lan erreformak erabat derogatzea eskatzen dugu eta, bereziki, lan hitzarmenaren estatalizazioa eta kaleratze erraz eta merkeak ahalbidetzen dituzten puntuak.

Horrekin batera, Euskal Herrian lan harremanetarako esparru propioa eratzeko urratsak eman beharra dago. Euskal langileon lan eta bizi baldintzen inguruko erabakiak Euskal Herrian hartu behar dira, eta ez Madrilen. EAE eta Nafarroako instituzioei eskatzen diegu ikusle soila izateari utzi eta lan harremanetarako esparru propioaren aldeko urratsak eman ditzaten.

ELA, LAB, STEILAS, ESK, ETXALDE eta HIRU sindikatuon iritziz langileen lan baldintzak hobetzeko tresna nagusia mobilizazioa da, eta horregatik dei egiten diegu euskal langileei urtarrilaren 30ean berriro ere Euskal Herriko hiriburuak bete ditzagun eta lan erreforma bozkatu bezperan lantokien aurrean lan erreforma honen aurkako euskal langileen iritzia plazaratu dezaten.

CONTRA LOS DESPIDOS FÁCILES ¡NO A ESTA REFORMA LABORAL!

En los últimos meses ha habido un debate a nivel estatal sobre la reforma laboral. La toma de decisiones en Madrid sobre un tema tan importante en la vida de los trabajadores y las trabajadoras vascas pone de manifiesto las limitaciones del autogobierno vasco y navarro. Los agentes que no representan a los trabajadores y trabajadoras vascas ni a nuestra ciudadanía han sido quienes han tomado las decisiones.

Junto a ello, hay que denunciar que el Gobierno español no ha cumplido su promesa, no ha derogado la reforma laboral impuesta unilateralmente por el Partido Popular en 2012. Ni siquiera ha hecho lo prometido, porque no han dado la vuelta a los elementos más lesivos de la reforma laboral. Se ha primado un acuerdo con la CEOE a través del Diálogo Social en lugar de cumplir con el compromiso adquirido con la clase trabajadora.

La reforma laboral acordada por el Gobierno español, CCOO, UGT y CEOE mantiene la médula de las reformas laborales de 2010 a 2012. A partir de ahora mantendrán prácticamente todas las herramientas que buscaban el empobrecimiento de la clase trabajadora.

Nos preocupan especialmente dos elementos. Por un lado, en la negociación colectiva mantienen la imposición del marco estatal y no dan seguridad jurídica a los convenios que negociamos tanto en la CAPV como en Navarra. En Euskal Herria queremos hacer nuestras negociaciones para mejorar las condiciones laborales de los trabajadores y las trabajadoras sin injerencias externas. Porque la negociación colectiva ejercida por la representación elegida democráticamente por la clase trabajadora vasca es una oportunidad para mejorar sus condiciones laborales, eso es, a nuestro entender, la capacidad de decidir en el marco de la negociación colectiva.

En relación con esto, también debemos denunciar la trampa en torno a la prevalencia de los convenios sectoriales. Lo que pedimos es que los convenios sectoriales sean mínimos en su conjunto por encima de los convenios laborales de empresa, no sólo en salarios, sino en todos sus elementos.

Por otro lado, los procedimientos de despido no han variado. En 2012 se difuminaron enormemente las causas del despido objetivo, se abarató el despido, se eliminó el control de la administración en los despidos colectivos y se eliminaron los salarios de tramitación. Todo ello se

mantiene. El despido fácil es una herramienta de precarización y una herramienta para generar incertidumbre a las personas trabajadoras, y por eso la patronal ha vetado los cambios en esta materia.

Se trata, además, de una oportunidad perdida para la consecución de nuevos derechos, siendo de especial gravedad que esta reforma no recoja la equiparación total de las Trabajadoras del Hogar y Cuidados con el resto de personas trabajadoras. De este modo, permanecen excluidas del Régimen General de la Seguridad Social y en una situación en la que carecen de derechos básicos como la huelga o la prestación por desempleo, además de permanecer, de esta manera, excluidas de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales.

Tampoco asegura esta reforma que los y las trabajadoras de las subcontratas tengan los mismos derechos que las de la empresa principal, no se consigue algo tan básico como que se tengan los mismos derechos por el mismo trabajo.

Estamos ante una reforma laboral muy grave. El Diálogo Social ha sido una excusa para no cumplir la palabra. Han dado el derecho a veto a la CEOE para que, a cambio de pequeñas mejoras, se vuelva a validar la reforma laboral de 2012, renunciando a la posibilidad de realizar cambios profundos a partir de ahora. Por ello, solicitamos la total derogación de las reformas laborales de 2010 a 2012 y, en particular, de los puntos que permitan la estatalización de los convenios y los despidos fáciles y baratos.

Junto a ello, es necesario avanzar en la creación de un marco propio de relaciones laborales en Euskal Herria. Las decisiones sobre las condiciones laborales y de vida de los trabajadores y trabajadoras vascas deben tomarse en Euskal Herria y no en Madrid. Pedimos a las instituciones de la CAPV y Navarra que dejen de ser meros espectadores y den pasos hacia un marco propio de relaciones laborales.

Los sindicatos ELA, LAB, STEILAS, ESK, ETXALDE e HIRU consideran que la movilización es la principal herramienta para mejorar las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras, por lo que hacemos un llamamiento a los trabajadores y trabajadoras vascas a que el próximo 30 de enero, llenemos de nuevo las capitales de Euskal Herria y en la jornada previa a la votación de la reforma laboral hagamos pública nuestra opinión sobre esta reforma laboral frente a los centros de trabajo.